

**KALITATEA BERMATZEKO
BARNE SISTEMAREN GIDALIBURUA**



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Nork onartua:

Kontseilu Errektorea

KALITATEAREN BARNE BERMERAKO GIDALIBURUA. AURKIBIDEA

1. KAPITULUA: MONDRAGON UNIBERTSITATEA ETA HUHEZIREN AURKEZPENA.

- 1.1. HUHEZIREN HISTORIA
- 1.2. HUHEZIREN EGITEKOA, BALIOAK ETA BISIOA.
- 1.3. HUHEZIREN GESTIO EREDUA ETA EGITURA
- 1.4. BAZKIDEAK ETA INTERES TALDEAK
- 1.5. ORGANIGRAMA

2. KAPITULUA: KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMAREN HELBURUA ETA EZARPEN EREMUA

- 2.1. HELBURUA
- 2.2. EZARPEN EREMUA
- 2.3. DOKUMENTUEN ITURRIAK

3. KAPITULUA: KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMA

- 3.1. PROZESUEN MAPA
- 3.2. DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA
 - 3.2.1. Prozesuen fitxak
 - 3.2.2. Prozeduren fitxak
- 3.3. KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMAREN GIDALIBURUA

4. KAPITULUA: ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN ARDURAK

- 4.1. ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN KONPROMISOA
- 4.2. KALITATE-POLITIKA
- 4.3. PLANIFIKAZIOA
 - 3.3.1 Kalitate-helburuak
 - 3.3.2 KBBSaren planifikazioa
- 4.4. KOMUNIKAZIOA ETA KONTU-EMATEA
 - 4.4.1 Barne komunikazioa eta kontu ematea bazkideei.
 - 4.4.2 Kanpo komunikazioa eta kontu ematea interes taldei.

5. KAPITULUA: GIDALIBURUAREN ALDAKETAK

1. MONDRAGON UNIBERTSITATEA ETA HUHEZIREN AURKEZPENA

Ondoren, HUHEZiren ezaugarri orokorrak deskribatzen dira:

Oinarrizko datuak:

Izena: Mondragon Unibertsitateko Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea - Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea. (HUHEZI Koop. E.)

Helbidea: Dorleta auzoa, z/g. 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 71 41 57

Faxa: 943 71 40 32

E-maila: harrera.huhezi@mondragon.edu

Web orrialdea: www.mondragon.edu/huhezi

1.1 HUHEZIREN HISTORIA.

Gaur egun Mondragon Unibertsitatea bezala ezagutzen duguna Goi Hezkuntzako lau zentrok osatzen dute; horietako bat da, hain zuzen, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI Koop. E.). Besteak Enpresa Zientzien Fakultatea (Enpresagintza Koop. E.), Ingeniaritza Goi Eskola (MGEP Koop. E.) eta Basque Culinary Center (BCC) dira, azken hau 2010. urtean sortutakoa. 1998ra arte Euskal Herriko Unibertsitateara atxikitako zentroak izan ziren. 1998-1999 bitartean, Mondragon Unibertsitatea sortzean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtu zen ordurarteko Irakasle Eskola Koop. E.-a.

Irakasle Eskola moduan sortu zenetik, 1976an, Mondragon Taldeko mugimendu kooperatibora atxikitako hezkuntza kooperatiba izan da. Hortaz, kooperatiba izaera duen erakundea da Fakultatea, Euskal Herrian errotoa. Era berean, ezagutzari lotutako formazio, ikerketa, aplikazio eta transferentziari dagokionez, HUHEZI irekita dago mundu osoan arlo horretan diharduten beste zentro, pertsona eta erakunde batzuekiko elkarlan eta hartu-emanetara.

Sortu zenetik eta Mondragon Unibertsitatea eratu arte, HUHEZIREN eginkizuna irakasleak prestatzea izan zen; hori dela eta, soil-soilik Irakasle tituluak eskaintzen zituen. 1976 eta 1991 bitartean, honako Irakasle espezialitateak eskaintzen ziren: Giza Zientzietan espezializatua, Eskolaurreko Irakaskuntzan espezializatua, Zientzia Matematiko-Naturaletan espezializatua, Euskal Filologian espezializatua eta Ingeles Filologian espezializatua. 1991 eta 1998 bitartean, Haur Hezkuntzan espezializatutako Irakasle titulu eta Atzerriko Hizkuntzan espezializatutako Irakasle tituluak eskaini ziren. 1998an, Mondragon Unibertsitatea sortzarekin batera, enpresara egokitutako Humanitate Lizentziatura eskaintzen hasi zen.

Hezkuntzako tituluei dagokienez, Irakasle tituluaren eskaintza zabaldu egin zen, Heziketa Berezia, Heziketa Fisikoa, Entzumena eta Mintzaira eta Lehen Mailako Irakaskuntza txertatuz. Horrez gain, 2000-2001 ikasturtean, Psikopedagogia Lizentziatura ezarri zen Hizkuntzen Psikopedagogiaren lerroan, eta 2002-2003 ikasturtean Esku-hartze Psikopedagogikoaren lerroa ireki zen.

2005ean, Ikus-Entzunezko Komunikazioko Lizentziatura eskaintzen hasi zen.

2009-2010 ikasturtean, eta Bologna prozesuaren ondorioz, Europar esparrura egokitutako titulazio berriak eskaintzen hasi zen, zehazki honako hauek:

Graduak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa.

Masterrak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxillergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Master Ofiziala.

2010-2011an bi Unibertsitate Master Ofizial eskaintzen hasi zen: Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Masterra eta Berrikuntza Didaktiko eta Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan Masterra.

2012-2013an Vic-eko unibertsitatearekin batera diseinatutako eta antolatutako **Doktorego Programa** berri hau jarri zen abian: Berrikuntza eta esku-hartzea Hezkuntzan Programa.

2019-2020 ikasturtean, Ikaskuntza erraztea eta berrikuntzan Unibertsitate masterra eskaintzen hasi zen.

2020-2021 ikasturtean, master eta gradu berri bat jarri ziren martxan, Kooperatibismoa eta Kudeaketa sozioenpresarialeko Unibertsitate Masterra eta Humanitate Digital Globalak Gradua.

2022-2023 ikasturtean master berri bat jarri zen martxan, Gastronomiako Irakasle Prestakuntzan Unibertsitate Masterra.

Fakultatearen ezaugarriak hemen laburbiltzen ditugu: irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, kooperatiboa; eta haren antolaketa euskal hizkuntza eta kulturarekin lotuta dago, eta orobat, inguruko mundu kooperatiboarekin. Hori dela eta, bazkide eta interes taldeei dagokienez ere, eredu parte-hartzailea bilatzen du Fakultatearen kudeaketari dagozkion arloetan ere. Bestalde, kooperatiba den heinean, bere helburuen artean daude gizartean txertatutako unibertsitatea izatea eta gizartea eraldatzeko konpromisoa.

1.2 HUHEZIREN EGITEKOA, BALIOAK ETA BISIOA.

HUHEZIREN EGITEKOA da gizartearen humanizazioan eragiteko jakintza garatzea eta pertsonak hezteko kooperazio balioetan.

Euskara hartzen du ardatz mundu eleanitz eta kulturantz bati begira. Helburu du bertako komunitatea (langile eta ikasleak) inplikatzeko bere lanaren bidez gizartearen garapenean, beti ere honako printzipioei jarraituta: pertsonaren garapena, parte-hartzea eta elkartasuna.

Gure misioa. Misioa da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen estrategiaren abiapuntua. Mondragon Unibertsitatearen baitako fakultate kooperatiboa gara eta honako hau da gure eginkizuna:

GIZARTEAN BALIO HAUEK SUSTATZEA:

- Partaidetza eta konpromisoa
- Elkartasuna
- Pertsonenganako orientazioa
- Gizarte eraldaketa

EUSKAL KULTURA ETA HIZKUNTZA OINARRI IZANIK, MUNDU ZABALARI BEGIRA IKUSPEGI:

- Eleanitza
- Kulturantz

GIZA TALDE MOTIBATU ETA KONPROMETITUA:

- Berrikuntzarekiko
- Irakaskuntzarekiko
- Ikerkuntzarekiko
- Transferentziarekiko

Gure bisioa. Zer izan nahi du Fakultateak 2030ean?

1. Hezkuntza berrikuntzan eta eraldaketa digitalean liderra eta nazioartean aitortua, ikerketa kolaboratiboko eta trasferentziako eredu propioarekin.
2. Unibertsitate kooperatibo euskaldun inklusiboa, gizartean sortzen duen eraginagatik aitortua.
3. Lankidetzan oinarritutako proiektua, konprometituak eta erantzukide diren pertsonekin osatua.

Gure balioak. Gure misioarekin bat eta horren garapena bermatzeko, jarraian zehaztutakoak dira gure balioak:

PASIOA: Profesioarekiko inplikazioa, konpromisoa eta proiektu konpartituarekiko atxikimendua ditugu.

GERTUTASUNA: Konfiantzazko elkarrekintza sustatzen dugu gure onena eskainita.

BERRIKUNTZA: Erronkei proaktiboki eta begirada kritiko batetik ekiten diegu, aurrea hartzen diegu modu dinamiko eta malguan.

PERTSONA ARDATZ: Garapen osorako kultura sustatzen dugu, elkarrengandik etengabe ikasiz eta gizatasuna ardatz hartuta.

(INTER)KOOPERAZIOA: Erantzukidetasunez eta lankidetzan jarduten dugu gure artean eta kanpoko egileekin.

JUSTIZIA eta JASANGARRITASUN ekologikoa bultzatzen dugu.

Lehentasunezko helburuak. Hurrengo lau urteetarako, honako helburuak finkatu digugu:

- I+T+LLL zikloa indartu, ikaste-esperientzian eragiten jarraitzeko.
- Berrikuntza pedagogikoa eta eraldaketa digitala sustatu.
- Ikerketa kolaboratiboan bikaintasuna lortu hautatutako espezializazio-arlo estrategikoetan.
- Fakultatea gehiago ireki eta Bilbo palanka estrategiko moduan garatu.
- Pertsona erdigunean jartzen duen proiektu kooperatiboaren alde egiten jarraitu.
- Komunikazioa eta marketin diferentziala garatu Fakultateko produktuak, merkatuak eta proiektuak ezagutarazteko.
- Fakultatearen iraunkortasun ekonomikoa bermatu.

Erronka estrategikoak:

- 1) Hezkuntza berrikuntzan eta eraldaketa digitalean erreferenteak izan ikerketa kolaboratibo eta transferentziako eredu propiorengatik.
 - ❖ Gure eredu berritzailean sakondu ikasleak ardatz hartuz, ikasleari esperientzia pertsonalizatua eskaini eta egiten duguna gizarteratu.
 - ❖ Egindako berrikuntza I+T+LLL ziklo osora ekarri, I+T arloaren errentagarritasuna bermatzeko.
 - ❖ Hezkuntzako digitalizazio estrategia indartu, erreferente izateko palanka gisa.
- 2) Prestakuntza eskaintza dibertsifikatzeko aukerak arakatu eta LLL-ari garrantzi berezia eman hazteko palanka gisa.
 - ❖ LLL jardunaren posizionamendua eta negozio eredu definitu, profesionalizatu eta modu proaktiboan garatu.
 - ❖ HUHEZItik dibertsifikaziorako proposamen zehatzak garatu.
 - ❖ Digitalizazio eta online ereduak indartu, formatuak malgutzeko eta eraginkorrakoak izateko.
- 3) Espezializazio- eta bikaintasun-maila hobetu zenbait arlotan.
 - ❖ Hezkuntza Berrikuntzan bikaintasuna lortu.
 - ❖ Argitalpen kopurua igo eta inpaktua areagotu.
 - ❖ Kanpo-finantzaketa lehiakor gehiago lortu definituriko espezializazio arloetarako.
 - ❖ Espezializazio handiagoa lortu hezkuntzaren, komunikazioaren eta kooperatibismoaren arlo jakin batzuetan.
- 4) Irekitasun eta globaltasun handiagoa lortu.
 - ❖ Fakultatearen Bilboko apustua arrakastaz garatu eta Bilbo baliatu HUHEZItik beste jarduera batzuk sendotzeko, eta proiektua fakultatean ondo txertatuko dela ziurtatu.
 - ❖ Merkatu berriak arakatu.
 - ❖ Ikasle profil anitz eta zabalagoa lortu Unibertsitatea denontzat eskuragarria egiteko.
 - ❖ Espainiako eta Nazioarteko ikasleak, irakasleak eta proiektuak erakarri, eta Fakultateko ikasleen eta profesionalen mugikortasuna sustatu.
- 5) Fakultatea barrutik sendotu erronkak lortzea bermatzeko.
 - ❖ Fakultateko digitalizazioa indartu.
 - ❖ Barne eta kanpo sinergiak bultzatu.
 - ❖ Pertsonen garapen eta jarraipenerako sistema integralagaratu.
 - ❖ Balioak eta proiektu partekatua bizi.
 - ❖ Komunikazioa eta marketina sendotu arlo guztietan.
 - ❖ Hazkunde errentagarria bermatu.

1.3. HUHEZIREN GESTIO EREDUA ETA EGITURA.

2021eko uztailaren 7an Gestio eredu berria onartu zen Kontseilu Errektorean. GUHEZI moduan izendatu dugun proiektua sortu zen dekanook bazkideekin egindako elkarrizketak, foro eta espazio ezberdinetan egin ziren eskaerak zein ekarpenak eta Kultura Inkestako emaitzak kontuan hartuta. Helburu nagusi batekin sortu zen GUHEZI proiektua: GUztion artean HUHEZI indartzea.

Hauek guztiak kontuan izanik sortu ziren:

- Hiru ezagutza arlo: Hezkuntza, Komunikazioa eta Kooperatibismoa. Ezagutza arlo hauen ardura da irakaskuntza, ikerketa eta aholkularitza ematea, bakoitza dagokion ekintza-eremuan. Langile guztiak, Administrazio eta Zerbitzuetakoak salbu, hiru ezagutza arlo horietara lotzen dira. Arlo bakoitzak kudeaketa-talde bat izango du, bere antolaketa-egitura bereziaren arabera. Era berean, kudeaketa-unitate bakoitzak emaitza-kontu bat izango du.
- Hiru lan-talde: Administrazio eta Finantzak, Zerbitzu Akademikoak eta Baliabide Material eta Didaktikoen Kudeaketa.
- Hiru aktibitate: Akademikoa, Etengabeko Prestakuntza eta Ikerketa, Transferentzia eta Hezkuntza Proiektua. Beraien ardura izango da jarduera planifikatzea, jarraipena egitea ikuspegi osoarekin eta ezagutza arloko kontrasteak eginez, aktibitate bakoitzak ezarri beharreko estrategia komuna zehaztea eta jarduera garatzeko etorkizuneko eredu zehaztea, oinarri hartuta aktibitateetatik ateratzen diren proposamenak eta Zuzendaritzatik jasotako orientabideak. Aktibitate bakoitzak arduradun bat izango du eta aktibitate bakoitzaren antolaketa-egitura bereziaren arabera lan-talde desberdinak egongo dira barruan.
- Zuzendaritza Kontseilua honako kideek osatuko dute: Dekanoak, Finantza arduradunak, Kooperatibismoa ezagutza arloko arduradunak, Komunikazioa ezagutza arloko arduradunak, Hezkuntza ezagutza arloko arduradunak, Zuzendari Akademikoak, Etengabeko Prestakuntzako arduradunak eta Ikerketa, Transferentzia eta Hezkuntza Proiektuko arduradunak. Erabaki-gune moduan Zuzendaritzan bat etorriko dira orientazio estrategikoen definizioarekin, langile-politikarekin: kontratazioari buruzko araudia, ordainketa-sistemari buruzkoa, inbertsio-politika, komunikazio-politika, fondo ekonomikoen erabilera, e.a.

Honela, antolaketa honetatik abiatuta, eta Fakultatearen kooperatiba izaera kontutan izanik, gaur egun erakunde osatzen duten organoak honakoak dira:

- Batzar Nagusia: kooperatibaren organo nagusia da, eta proportzio berean hartzen dute parte bazkide langileek, ikasleen ordezkariak eta enpresa laguntzaileetako ordezkariak. Kide mota bakoitzak botoen herena du; hortaz, parte-hartzearen eta erabaki ahalmenaren banaketa parekoa da.
- Kontseilu Errektorea: kooperatibaren kudeaketa eta ordezkatzeko organoa da. Lan bazkideen 4 ordezkariak, ikasleen 4 ordezkariak eta bazkide laguntzaileen 4 ordezkariak osatzen dute; azken horien artean, enpresak, hezkuntza erakundeak eta erakunde publikoak daude. Horiez gain, Dekanoa edo Zuzendari Nagusiak ere hartzen du parte Kontseilu Errektorean. Bertako kideen artean Lehendakari bat hautatzen da (bera da erakundearen ordezkaria), Lehendakariordea eta Idazkaria.
- Zaintza-Batzordea: Batzar Nagusian bazkideek aukeratutako hiru kidek osatzen dute. Batzorde honen helburua da bermatzea Batzar Nagusian aurkezten diren kontuak bat datozela enpresaren ondareekin.

- Kontseilu Soziala: informazio eta kontsultarako organoa da Kontseilu Errektorearentzat zein Dekanoarentzat, lanarekin lotutako arlo guztietarako. Kontseilu Errektoreko lan bazkide bat da Kontseilu Sozialeko lehendakaria, eta lan bazkideen ordezkariekin batera osatzen dute organoa.
- Ikasle Batzordea: ikasleek osatutako informazio eta kontsultarako organoa da. Ikasleek beraiek aukeratu dituzte Ikasle Kontseiluko kideak, eta azken horiek erabakitzen dute nortzuk izango diren ikasleen ordezkariak Kontseilu Errektorean.

Fakultate mailan zeharkakoak diren Batzordeak:

- Administrazio eta Zerbitzuetako Batzordea: Dekanoak eta Administrazio eta Zerbitzuen lantaldeetako koordinatzaileek osatzen dute. Gaiaren arabera, beharrik balego, Zuzendari Akademikoa eta Ikerketa, Transferentzia eta Hezkuntza Proiektuko arduradunak doaz bileretara.
- Hizkuntza Politika Batzordea: Taldea osatzen da Batzordeko koordinatzaileaz, Euskara Batzordeko kide batez eta Komunikazioa eta Marketin taldeko kide batez.
- Nazioarteko Batzordea eta taldea: Batzordeaz gain - zeina osatzen den Nazioarteko taldeaz, Dekanoaz eta Zuzendari Akademikoaz-, Nazioarteko gaien gestioa Nazioarteko Taldearen bidez egikaritzen da. Nazioarteko Taldea osatzen da programa ezberdinen beharretara egokitutako perfilekin: Nazioarteko koordinatzailea, Studies ikasleen mugikortasun arduraduna, Prakticum arduraduna, incoming-en arduraduna eta idazkaritzako eta administrazio arduraduna.
- Komunikazio eta Marketin taldea: Taldea osatzen da Komunikazio arduradunaz eta marketin eta komunikazio teknikoez.
- Berdintasun Batzordea: Osaera irekiagoa duen taldea da eta gaur gaurkoz osatzen da: Zuzendaritza Kontseiluko kide batez, Kontseilu Sozialeko kide batez, Hezkuntzako kide batez, Hezkuntza Graduetako koordinatzaile batez, Komunikazioko kide batez, Kooperatibismoko kide batez, gaien adituak diren edo interesa duten kideez eta bi ikaslez.
- Lan Arriskuen Prebentzio Batzordea: Taldearen osaera hurrengo da: arduraduna, Kontseilu Sozialeko kide bat, teknikariak edo medikuak (Osarteneko gaiak baleude).
- Kalitate Batzordea: Barne Kalitate Sistemaren garapenaren arduraduna da. Honako hauek osatzen dute: Dekanoak, Zuzendari Akademikoak, Hezkuntza arloko zuzendariak, Zuzendari Akademikoak, Ikerketako zuzendariak, Administrazioa eta Finantza Zuzendariak, Kalitate arduradunak eta Kalitate teknikariak.

1.4. BAZKIDEAK ETA INTERES TALDEAK.

HUHEZlren egitekoa gizartearen humanizazioan eragiteko jakintza garatzea eta pertsonak hezteko kooperazio balioetan izanik, erakundea osatzen duten bazkideak (langileak, ikasleak eta erakundea) inplikatu dituzte bere lanaren bidez gizartearen garapenean. Honela, interes taldeen (gizartea eta enplegu-emaileak) beharrak asetuko dituzte bazkideen lan eta inplikazioarekin.

2. KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMAREN HELBURUA ETA EZARPEN EREMUA

2.1. HELBURUA

Mondragon Unibertsitatean 1999. urtean onartu zen I. Kalitate Plana eta 2000-2007 urteetarako landu zen Plan Estrategikoan adierazten zen modura, Kalitatea zen unibertsitatearen erronka estrategiko nagusienetarikoa bat. MUko errektoreak berak zuen ardura zuzena unibertsitateara egokitutako kalitate politika ezartzen. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, MUren partaide zen neurrian, 2000. urtean onartu zuen bere lehen kalitate politika eta ordutik hainbat ekimen gauzatu ditu kalitatearen kudeaketan.

Honela, kalitate-politika honek helburu zuen Fakultatearen erantzukizun eta betebeharrei erantzuteko gai garela ziurtatzea, bai gure bazkideekiko (ikasle, langile eta partide diren erakundeekiko) eta baita gure interes taldeekiko (enplegu-emaile eta gizartea, oro har).

Helburu honekin bat egiten dugu eta nahiko genuke sistema bera modu eraginkorrean ezartzea, beharrezko prozesuak eta adierazleak eguneroko zereginetan etengabeko hobekuntzaren bidez txertatuz.

2.2. EZARPEN EREMUA.

Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak, **HUHEZIK** garatzen dituen jarduera guztiak jasotzen ditu:

Graduak

Haur Hezkuntza. 2010eko ekainaren 10eko Ebazpena (BOE 2010eko ekainaren 26koa)

Lehen Hezkuntza. 2010eko ekainaren 10eko Ebazpena (BOE 2010eko ekainaren 26koa)

Ikus-entzunezko Komunikazioa. 2010eko ekainaren 10eko Ebazpena (BOE 2010eko ekainaren 26koa)

Humanitate Digital Globalak. 2020ko irailak 22ko Ebazpenak

Gradu ondoko titulazioak

Unibertsitate Master Ofizialak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxillergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Master Ofiziala. 2011ko martxoaren 5eko Ebazpena (BOE 2012ko martxoaren 26koa)

Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra. 2020ko urtarrilak 15eko Ebazpena. (BOE 2020ko otsailak 5ekoa).

Kooperatibismoa eta Kudeaketa sozioempresariala. 2021eko urtarrilak 14ko Ebazpena.

Gastronomiako irakasle prestakuntza. 2021eko urriak 6ko Ebazpena.

Adituak

Euskal Kulturaren Transmisioan Aditu Titulua.

Kooperatibagintzan Aditua

Koopfabrika Aditu Titulua

Herrigintzaren berrikuntzan Aditu Titulua

Experto Universitario en Educación Cooperativa

Experto Universitario en Formación Pedagógica para profesorado de formación profesional en gastronomía y hostelería.

Experto Universitario en Formación Pedagógica para profesorado de formación profesional en medioambiente, sostenibilidad y energías.

Experto Universitario en Formación Pedagógica para profesorado de formación profesional en comunicación y marketing.

Espezializazio diploma Eskola eraldatzeko pedagogia eta kudeaketan.

Unibertsitate Aditu Titulua Ikus-entzunezko ekintzailertzan eta berrikuntzan

Doktoregoa

Berrikuntza eta esku-hartzea Hezkuntzan Doktorego Programa. (2014ko ekainaren 2ko Ebazpena. (BOE 2012ko ekainaren 12koa)

2.3. DOKUMENTUEN ITURRIAK

HUHEZIren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren diseinu eta inplementazioak oinarri edo iturri hauek ditu.

- MONDRAGON Taldean indarrean dagoen araudia.
- Mondragon Unibertsitateko Koop. E.ko Estatutuak eta Barne Araudia.
- HUHEZI Koop. E.ko Estatutuak.
- HUHEZI Koop. E.ko Barne Araudia.
- Mondragon Unibertsitateko Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana.
- HUHEZIren Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana.
- Lan Arriskuen Prebentziorako arauak eta politika.
- Mondragon Unibertsitateko Kalitate Politika.
- Goi mailako hezkuntzarako indarrean dauden legeak.
- Goi Mailako Hezkuntzaren Espazio Europarraren irizpide eta arauak.
- ANECA eta UNIBASQ-eko arau eta irizpideak, bereziki AUDIT programari dagozkionak.


Oinarri guzti hauek kontutan izanda honako dokumentazioa eratu da:

- Kalitate Barne Bermerako Gida-liburua.
- Prozesuen fitxak.

3. KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMA.

HUHEZIko KBBSa egituratu eta antolatzeko, definitu dira prozesuak. Prozesuen arteko elkarreragina eta prozesu horiek gauzatzeko metodo eta irizpideak ere definitu dira, honetarako behar den informazioa eskuratu, aztertu eta argitaratzen da. Diseinatutako sistema honen bitartez, prozesuak neurtu, jarraitu eta hobetu egiten dira, etengabeko hobekuntza zikloaren bidez.

3.1 PROZESUEN MAPA- Hauek dira prozesuak eta haien arteko loturak:



Lau prozesu mota desberdintzen dira mapa honetan:

Prozesu Estrategikoak: Fakultateak dituen helburu estrategiko eta kudeaketa helburuak zehazteko mekanismoak finkatzen dituzte, aurreikusitako helburuen lorpen mailaren jarraipena egiteko. Pertsonen garapenarekin zerikusia duten prozesuak ere jasotzen dira. (Detallan los mecanismos de la Facultad para establecer los objetivos estratégicos y de gestión; para hacer el seguimiento de la consecución de los objetivos previstos. También se recogen los procesos que tienen relación con la gestión de las personas)

Prozesu Klabeak: Fakultatearen oinarritzko hiru aktibitateen (Graduko Formazioa, Graduondo, Etengabeko Prestakuntza, Doktoregoa eta Ikerketa eta Transferentzia) garapenerako fakultateko pertsona eta lan-taldeek ekintzak zehazten dituzte.

Prozesu hauek Gradu eta Master guztietara hedatu dira.

Prozesu Laguntzaileak: Azpiegitura prozesuak dira, oinarrizko jarduerak bideratzea posible egiten dutenak.

Hobekuntza Prozesuak: Kalitate sistemaren neurketa, jarraipena eta hobekuntza dute helburu prozesu hauek.

Ondoko Taula honetan ikus ditzakegu prozesu, prozedura eta instrukzio guztiak eta haien lotura PDCA etengabeko hobekuntza zikloarekin:

DIMENTSIOAK	PROZESUAK	PROZEDURAK	INSTRUKZIOAK
P	Plan Estrategikoaren lanketa eta kudeaketa (E1)	E1 PR1 Gestio Planaren elaborazioa	
	Pertsonen garapena (E31)	E.3.1 PR1 Giza baliabideen beharren azterketa eta hautaketa irizpideak egiteko prozedura E.3.1 PR2 Harrera Plana E3.1 PR3 Gaikuntza Plana S1...1 PR4 Langileen ebaluazioa E3.1 PR5 DOCENTIA programa kudeatzeko prozedura E3.1 PR6 IKERTRAMOEN kudeaketa E3.1 PR7 HUHEZIlko doktoreek akreditazioa lortzeko jarraitu beharreko prozedura E3.1 PR8 Irakasleak webgunean jartzeko prozedura E3.1 PR9 Irakasle berriak Mudle-en alta emateko jarraitu beharreko prozedura	
	Bazkidetza prozesua (E4.1)		
D	Graduko ikasketen kudeaketa (O2)		
	Graduko programen kalitatea bermatzeko prozesua (O2.1)		O21 INIS1 Estructura akademikoan titulazio berria sortzeko instrukzioa
	Graduko profilen definizioa eta ikasleen onarpena (O2.2)	O2.2 PR1 Gradu presentzialeko hautagaiak aukeratu, onartu eta matrikulatzeko prozedura O.2.2PR2 Eskaintza erdi presentzialeko ikasleak matrikulatzeko jarraitu beharreko prozedura	
	Graduko ikaslearentzako irakaskuntzaren garapena (O2.3)	O2.3 PR1 Gradu bukaerako lanaren defentsarako prozedura	
	Graduko ikaslearen mugikortasunaren kudeaketa (O2.4)	O2.4 PR1 Mugikortasuna kudeatzeko prozedura O2.4 PR2 Incoming ikasleak kudeatzeko prozedura	
	Graduko ikasleen orientazio profesionalaren kudeaketa (O2.5)		
	Graduko kanpo praktiken kudeaketa (O2.6) Praktika ez curricularren kudeaketa (O2.6.A)	O2.6 PR1 Praktiken kudeaketa administratiboa O2.6A PR1 Bekadunen praktika etenaldien kudeaketa	
	Graduei buruzko informazioa argitaratzea (O2.7)	O2.7 PR1 Fakultateko katalogoak egiteko jarraitutako prozedura O2.7 PR2 Ate irekiak edo azokak antolatzeko jarraitu beharreko prozedura O2.7 PR3 Webgunearen kudeaketan jarraitu beharreko prozedura O2.7 PR4 Ikasle interesdunen jarraipena	O27 INS1 Ate irekien antolaketa O27 INS2 Azokak eta ikastetxeetara bisitak O27 INS3 Graduetako Inskripzioa egiteko jarraitu beharreko pausuak O27 INS4 Onarpen proben antolaketa
	Gradu-ondoko ikasketen kudeaketa (O3)		



Mondragon
Unibertsitatea

KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMAREN GIDALIBURUA

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Berrik.: 06

Data: 23-07-12

Or.: 22tik 14

Gradu-ondoko programen kalitatea bermatzeko prozesua (O3.1)	O3.1 PR1 Formazio programak diseinatu eta onartzeko prozedura	O31 INS1 Estructura akademikoan titulazio berria sortzeko instrukzioa
Gradu-ondoko profilen definizioa eta ikasleen onarpena (O3.2)	O3.2 PR2 Hautagaiak aukeratu, onartu eta matrikulatzeko prozedura	
Gradu-ondoko ikasleentzako irakaskuntzaren garapena (O3.3)	O3.3 PR1 Master bukaerako lanaren defentsarako prozedura	
Gradu-ondoko ikaslearen mugikortasunaren kudeaketa (O3.4)	O3.4 PR1 Mugikortasuna kudeatzeko prozedura	
Gradu-ondoko ikasleen orientazio profesionalaren kudeaketa (O3.5)		
Gradu-ondoko kanpo praktiken kudeaketa (O3.6)	O3.6 PR1 Praktiken kudeaketa administratiboa	
Praktika ez curricularren kudeaketa (O3.6.A)	O3.6A Bekadunen praktika etenaldien kudeaketa	
Gradu-ondoei buruzko informazioa argitaratzea (O3.7)	O3.7 PR1 Katalogoak egiteko prozedura O3.7 PR2 Ate irekiak eta azokak antolatzeko prozedura O3.7 PR3 Webgunea kudeatzeko prozedura O3.7 PR4 Ikasle interesdunen jarraipena egiteko prozedura	O37 INS1 Ate irekien antolaketa O37 INS2 Azokak eta ikastetxeetara bisitak O37 INS3 Masterreko Inskripzioa egiteko jarraitu beharreko pausuak O37 INS4 Onarpen proben antolaketa
Doktorego programen kalitatea bermatzeko prozesua (O4.1)		
Doktoregoko ikasleen profilen definizioa eta onarpena (O4.2)		
Doktoregoko ikasleentzako programaren garapena (O4.3)		
Ikerketa edo transferentzia proiektuen kudeaketa (O5.1)		
Berezko Tituluak martxan jartzeko prozesua (O6.2)	O6.2 PR1 Titulu berri baten proposamena egiterakoan, arakatzeko kontraste lana egiteko irizpideak O6.2 PR2 Berezko Titulu berrien onarpenerako kontuan hartuko diren irizpideak	
Berezko Tituluen kudeaketarako prozesua (O6.3)	O6.3 PR1 Proiektuen kudeaketa egokia egiteko jarraitu beharreko prozedura	
Ekipamendu, instalazio eta zerbitzuak kudeatzea (S2.1)	S2.1 PR1 Jardueren Koordinazioa S2.1 PR2 Ekipamendu eta instalazioen mantenimendua egiteko jarraitu beharreko prozedura	
Dokumentuen kudeaketa (S4.1)		
Datu pertsonalen kudeaketa (S4.2)		
Langileen lan arriskuen zaintza eta garapena (S5.1)		BOT1 Botika Kutxen kudeaketa
Emergentzia Plana (S5.2)	S5.2 PR1 Larrialdi kasuan jarraitu beharreko prozedura	
Lan istripuen kudeaketa (S5.3)		
Hondakinen kudeaketa (S6.1)		
	S2.1 PR1 Jardueren koordinazioa S1.1 PR8 Pertsonaleko zerbitzu	

	Erosketen kudeaketa (S8.1)	prestazioen kasuan jarraitu beharrezko prozedura S8.1 PR1 Ez ohiko inbertsioen kasuan jarraitu beharrezko prozedura S8.1 PR2 Kolaboratzaileen faktura onesteko prozedura	
	Diru-laguntzak kudeatzea (S9.1)	S9.1 PR1 Fundae bidezko laguntzen kasuan jarraitu beharrezko prozedura	
	Kobrantzak (S10)		
	Bibliotekako prozesu orokorra (S11)	S11.1 PR1 Bilduma osatu eta kudeatu S11.1 PR2 Zerbitzu orokorrak S11.1 PR3 Zerbitzu espezializatuak S11.1 PR4 Liburu bat argitaratzerakoan jarraitu beharrezkoa	
C	Emitzen jarraipena eta azterketa egitea (M3.1)		
A	Gertaerak, erreklamazioak eta iradokizunak kudeatzea (M1.1)		
	Gogobetetze maila neurtzea (M2.1)		
	Emitzen jarraipena eta azterketa egitea (M3.1)		

3.2 DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA.

3.2.1. Prozesuen fitxak.

Prozesu bakoitza FITXA batean jasotzen da, fitxa bakoitzak atal hauek ditu:

- Goiburuan** prozesuaren izena, kodea, onarpen edo aldaketa data, orri kopurua eta bertsioa zehazten dira.
- Prozesuaren **definizioa**:

DEFINIZIOA	PROZESUAREN HELBURUA	
	PROZESUAREN IRISMENA Hasiera:	PROZESUARI BURUZKO ARGIBIDEAK
	Amaiera:	
	PROZESUAREN ARDURADUNA	
	PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENAK	
	TERMINOLOGIA:	










c) Prozesuaren **sarrerak**:

SARRERAK	PROZESUAREN HORNITZAILEAK		
	Zer jasotzen da?	Nork ematen du?	Zein prozesutatik?

d) Prozesuaren **irteerak**:

IRTEERAK	PROZESUAREN BEZEROAK			
	Zer ematen da?	Nori?	Zein prozesuri?	Zehaztapenak

e) Prozesuaren **fluxu diagrama**: fluxu diagraman ikur hauek erabiltzen dira:

Prozesuaren ekintzak		Erreferentziako dokumentazioa	
Prozesuaren norabidea adierazten dute		Kontuak emateko Txostena	
Dokumentu, ebidentzia edo erregistroa		Prozesuaren hasiera eta amaiera	
Erlazionaturiko prozedura			
Erlazionaturiko prozesuak			
Erabakia			

f) Prozesuko **jardueren** azalpena:

Jarduera		Kudeatzailea	Deskribapena
Zkia.	Izena		

g) **Adierazleak:**

Kodea	Adierazlea	Adierazlea lortzeko formula	Zenbatetik zenbatera jasotzen den	Iturburua eta jasotzearen arduraduna	Adierazlearen hartzailea	Azalpena

h) **Dokumentuak eta erregistroak:**

Kodea	Deskribapena	D/E*	Artxibatzearen arduraduna	Artxibatze euskarria	Ordenatzeko irizpidea	Artxibatze epea*

i) **Prozedurak:**

Kodea	Deskribapena	D/E*	Artxibatzearen arduraduna	Artxibatze euskarria	Ordenatzeko irizpidea	Artxibatze epea*

j) **Prozesuaren aldaketak:**

Berrikuspen taula			
Berrik. zbk.:	Onarpena:	Data:	Egindako berrikuspena:

3.2.2. Prozeduren fitxak.

Prozeduretan prozesuetako ekintza batzuek garatzen eta zehazten dira. Prozedura bakoitza FITXA batean jasotzen da eta fitxa bakoitzak atal hauek ditu:

a) **Goiburuan** prozeduraren izena, kodea, onarpen edo aldaketa data, orri kopurua eta bertsioa zehazten dira.

b) Prozeduraren **definizioa:**

HELBURUA	
APLIKAZIO EREMUA	
ARDURADUNA	

c) Prozeduraren **deskribapena.**

d) Prozeduraren **dokumentu** eta erregistroak

Deskribapena	D/E*	Artxibatzearen arduraduna	Non artxibatzen den	Nola antolatuta	Artxibatze denbora*

--	--	--	--	--	--

k) Prozeduraren **aldaketak**.

Berrikuspen taula			
Berrik. zbk.:	Onarpena:	Data:	Egindako berrikuspena:

S4.1. Prozesuan zehazten dira dokumentazio, adierazle eta formatoen kodifikaziorako jarraibide eta irizpideak.

KBBSeko prozesu eta prozedimenduetako fitxak, adierazleak, dokumentuak eta erregistroak kudeatzeko bi baliabide informatiko erabiltzen dira:

Dokumentazioa kudeatzeko: ARASA deituriko baliabide informatikoa erabiltzen da. (helbidea: <http://arasa.mondragon.edu/>)

Kalitate sistema modu orokorrean eta zehazki adierazleak kudeatzeko KUDE deituriko baliabide informatikoa erabiltzen da (helbidea: <http://kude.mondragon.edu/eu/hasiera>)

3.3 KALITATEAREN BARNE BERMERAKO GIDALIBURUA.

Kalitatearen Barne Bermerako Gidaliburu hau **HUHEZI**ren barne erabilerarako dokumentua da.

Kalitate Gidaliburu Unibertsitateko Kalitate Batzordeak sortu, moldatu eta zabaltzen du, eta Kontseilu Errektoreak onartzen du, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta. Kalitate Arduradunaren ardura da zabalkundea kontrolatzea, baldin eta HUHEZItik kanpo zabaltzen bada.

Fakultatean Gidaliburu eguneratu eta banatzeko, webgunea, intraneta, e-maila eta Kude erabiliko dira.

Indarrean den bertsioaren aurrekoak intranetean gordeko dira, ARASAn, bakoitzari dagokion identifikazioarekin, bertsio batzuen eta besteen artean alderatu ahal izateko. Goiburuan agertuko da Gidaliburuaren zenbatgarren bertsioa den.

4. ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN ARDURAK

4.1 ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN KONPROMISOA

HUHEZIko Zuzendaritza Kontseiluak honako konpromisoak hartzen ditu bere gain:

- Zuzendaritza Kontseiluak erakundearen helburuak lortzeko, bazkide eta interes taldeen beharrianak eta espektatibak eta legeak ezartzen dituen betebeharrak bere egiten ditu eta hauek betetzen direla ziurtatzen du Kalitatea Bermatzeko Sistemaren bidez.
- Erakundeari jakinaraztea zenbateko garrantzia duen bazkideen, interes taldeen eta araudiaren eskakizunak betetzeak.
- Kalitate politikaren eta kalitate helburuen berri eman eta horiek eguneratuta izatea.
- Aldian-aldian, Kudeaketa Plana eta Plan Estrategikoaren jarraipenerako bilerak egitea.

4.2 KALITATE-POLITIKA

HUHEZIren kalitate politika:

- **OINARRIZKO PRINTZIOAK**

Mondragon Unibertsitatearen Plan Estrategikoan jasotzen den bezala, Kalitatea da bertan azaltzen diren erronketatik garrantzitsuenetakoa.

Erakunde horren parte den heinean, Hezkuntza eta Humanitate Zientzien Fakultateak (HUHEZI) ezin du alde batera utzi erronka hori, eta kalitate-politika ezartzeko borondatea azaltzen du; bere izaera berezia aintzat hartzen duen kalitate-politika, eta aldi berean, bat datorrena MUK zehaztutakoarekin.

HUHEZIren lana Hezkuntza, Komunikazioa eta Lankidetzaren arloekin lotuta dago, batez ere, eta horrexek eragiten du aipatutako izaera berezia. Hona HUHEZIren jarduerari lotutako bereizgarri batzuk:

- *Kalitateak Unibertsitatea osatzen duten guztien parte-hartzea eta konpromisoa eskatzen du hobekuntza prozesuan. Langileetatik hasi, eta mailaz maila, ikasleetaraino, denek hartu behar dute parte hezkuntza prozesuak kudeatu eta hobetzen.*
- *Formazioak bat etorri behar du bazkide eta interes taldeek azaltzen dituzten beharrek.*
- *Eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea kontrolatu egin behar da prozesu osoan zehar bazkideen formazio integrarekin.*

*Misiotik, printzipioetatik eta baloreetatik bertatik hasita, bezeroaren gogobetetzeak bideratu behar du, azken batean, fakultatearen jardueran. Horrek kalitatearen kudeaketa arduratsua eskatzen du. Alde horretatik, HUHEZIren ustez, **kalitatea kudeaketa eredu gisa ulertu behar da**, eta honako oinarriak izan behar ditu:*

- *Kalitatea elkarri lotutako prozesuek osatzen duten sistema bezala ulertu behar da. Prozesu horiek bide eman behar dute fakultatean dihardutenen gogobetetzea bermatzeko, eta baita zerbitzu eta produktuak eskaintzen zaizkien bezeroena ere.*
- *Kalitate-sistema ez da fakultatean garatzen diren eta garatu nahi diren prozesuen ikuskatze hutsa, ez bada prozesu horiek aztertu eta haien gainean hausnartzeko mekanismoa.*
- *Kalitate-sistema integratzailea da; hau da, kontuan hartzen ditu erakundea osatzen duten arlo eta jardueraren guztiak (irakaskuntza, ikerketa, administrazioa, kudeaketa).*



- *Kalitate-sistemak kolektibo osoaren parte-hartzea bultzatzen eta errazten du (irakasleena zein irakasle ez direnena).*
- *Kalitate-sistemak zenbait kudeaketa-tresna ditu (kalitate-komitea, prozedurak, adierazleak...). Tresna horiek aukera ematen dute kalitate-maila neurtzeko, jarraipena egiteko, eta behar izanez gero, beharrezko egokitzapenak eta aldaketak egiteko erakundean.*

Laburbilduz, **Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema** ezartzea planteatzen da. Kalitate-sistema horrek bere baitan bilduko ditu arestian aipatutako printzipioak, dokumentuetan jasota; bestalde, kalitate-sistema fakultatean garatzen diren prozesu eta ekintzen etengabeko berrikusketaz elikatuko da.

● **HELBURUAK**

Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema definitu eta ezarrita honako helburuak lortu nahi dira:

1. *Modu aktiboan hartzea parte MUK abiarazitako eta bere Kalitate-Planean zehaztutako etengabeko hobekuntza prozesuan.*
2. *Etengabeko hobekuntzara bideratutako jarrera bultzatzea fakultateko arlo guztietan eta helburu honetara bideratutako ekintzak sustatzea.*
3. *Fakultatean garatzen diren prozesuak berrikusi eta garatzea, bazkide eta interes taldeen gogobetetzera bideratuz.*
4. *HUHEZIK gizartearekiko duen erantzukizuna bermatzeko, eta gardentasuna izpide harturik, bazkide eta interes taldeei ekitaldiko emaitzen berri ematea.*
5. *Erakundearen jarduerari ezar dakizkiekeen lege-arauak betetzen direla bermatzea.*

HUHEZIkren Kontseilu Errektoreak publiko egiten du Kalitate-Politika hau, eta bermatzen du irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan parte hartzen dutenek ezagutzen eta ulertzen dutela.

Data eta izenpea

HUHEZIKo Kontseilu Errektoreak eta Zuzendaritza Kontseiluak egokitu egiten dituzte Kalitate-Politika eta bertatik eratorritako helburuak erakundearen asmoetara; horiek guztiak Kontseilu Errektoreak onartutako Kudeaketa Planean txertatzen ditu, eta beren kontrola KBBSaren jarraipenerako bileretan egiten da.

Kalitate-Politikan aldaketarik eginez gero, **HUHEZIKo** Zuzendaritza Kontseiluak zabaltzen du erakunde osora eta gizartera.

4.3. PLANIFIKAZIOA

4.3.1 Kalitate-helburuak.

HUHEZIKO Zuzendaritza Kontseiluak, urteko gestio planaren bidez, kalitatearen kudeaketaren esparruan helburu neurgarriak ezartzen ditu.

4.3.2 Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren plangintza.

KBBSaren jarraipena egiteko prozesuan, ezarritako helburuak betetzeko behar diren ekintzak zehazten dira.

Horrela, **Kalitate Batzordearen** ardura izango da jarraipen egokia egitea sistemaren garapenari. Batzorde hau Zuzendaritza Kontseiluak izendatzen du eta honako kideek osatzen dute:

Kalitate Batzordearen partaideak
Dekanoa
Zuzendari Akademikoa
Ikerketa eta Transferentzia zuzendaria
Administrazio eta Finantza zuzendaria
Hezkuntza arloko zuzendaria
Idazkari Akademikoa
Kalitate arduraduna

4.4 KOMUNIKAZIOA ETA KONTU-EMATEA

4.4.1. Barne komunikazioa eta kontu-ematea bazkideei.

Kalitate Batzordeak erakundearen maila guztiei helaraziko die KBBSaren prozesuen emaitzei eta eraginkortasunari buruzko informazioa. Barne komunikazio horretarako, ohiko bideak erabiliko dira (langileen bilera informatiboak, kudeaketa-organoetako bilerak, bazkideekin bilerak, batzorde estrategikoen bilerak, e.a.).

Bereziki organo hauek erabiliko dira:

- Kalitate Batzordea: Sistema guztiaren koordinazioaren ardurarekin bat, Hobekuntza Prozesuen arduraduna ere bada. Ikasturte bakoitzean sistema guztiaren Ebaluazio Txosten bat egingo du eta Kontseilu Errektoreari aurkeztuko dio.
- Kontseilu Errektorea: Kalitate Batzordeak egindako Txostena Fakultateko bazkideen artean zabalduko du urteroko Batzar Nagusian eta Urteko memoriaren bidez interes taldeen artean ere zabalduko du.



Horrez gain, edozein bazkide edo langilek egin ditzake sistemari buruzko ekarpenak horretarako diseinatutako M1.1. prozesuaren bitartez.

4.4.2. Kanpo komunikazioa eta kontu ematea interes-taldeei.

Kanpo komunikaziorako bide garrantzitsuenetakoa web orria da eta bertan argitaratzen dira:

- Kalitate Barne Bermerako Gida-liburua.
- Prozesuen fitxak.
- Prozeduren fitxak

Gradu eta Master bakoitzaren atalean honako dokumentu hauek argitaratuko dira:

- ANECAko Verifica Programan aurkeztutako Memoria eta ANECAko erantzuna.
- Unibasquen aurkeztutako Jarraipen Txostenetako ebaluazioak.
- Unibasquen aurkeztutako Akreditazio Txostenetako ebaluazioak.
- Adierazle panela.
- Docentiaren ebaluazio eskuliburua.

5. GIDALIBURUAREN ALDAKETAK

ALDAKETAK:

Berrikuspen-Taula			
Zenbatgarren berrikusketa	Nork onartua	Data	Egindako aldaketa
00	Kontseilu Errektorea	08-02-18	Lehenengo argitalpena.
01	Kontseilu Errektorea	09-01-22	4.5.3 puntuaren aldaketa. Unibasqueko iradokizunen arabera.
02	Kontseilu Errektorea	12-09-20	Antolakuntza berriaren ondorioz eskuliburu osoa berriztatu da, kapitulu guztiak aldatu dira. Prozesu mapa aldatu egin da eta prozesu berriak garatu dira.
03	Kontseilu Errektorea	13-12-19	BISIOaren egokitzapena 2013-2016 Plan Estrategikoaren ondorioz.
04	Zuzendaritza Kontseilua	17-06-20	BISIOaren egokitzapena 2016-2020 Plan Estrategikoaren ondorioz. Titulazioak egokitu dira, gidaliburua antolaketa berrira egokitu da eta sisteman egindako aldaketak gehitu dira.
05	Zuzendaritza Kontseilua	22-07-13	BISIOaren egokitzapena 2021-2024 Plan Estrategikoaren ondorioz. Titulazioak egokitu dira, gidaliburua antolaketa berrira egokitu da eta sisteman egindako aldaketak gehitu dira.
06	Kontseilu Errektorea	23-07-12	3.1 puntuko prozesu, prozedura eta instrukzioen taula eguneratu da